

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

**“Gorbeia hartuneen eta Askargan gaineko kutxatilarren artean Amurrioko hodiak berritzeko proiektu eguneratua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onarpena aldatzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak, 2024ko abenduaren 16an, 650/2024 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Amurrioko hoditeria Gorbeia hartuneen eta Askargan gaineko kutxatilarren artean berritzeko proiektu eguneratua”k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda aldatzea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 19ko 441/2022 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “Amurrioko hoditeria Gorbeia hartuneen eta Askargan gaineko kutxatilarren artean berritzeko proiektu eguneratua”, bai eta proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda eta hura jendaurrean nahitaez jartzeko izapidea.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 127/2023 Erabakiaren bidez, erantzun egin zitzaizen proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioei, eta onespina eman zitzaion haren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari; gainera, haiek okupatu eta eskuratu beharra zegoela adierazi zen, eta izapide hori premiazkoa zela adierazi zen, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena eman zitzaion proiektua egikartzeko behar ziren azalerak handitu eta/edo aldatzeko.

2024ko irailaren 6an, Arabako Foru Aldundiko Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak jakinarazi zuen ezen “Amurrioko hoditeria Gorbeia hartuneen eta Askargan gaineko kutxatilarren artean berritzeko proiektu eguneratua”ren obretarako desjabetze espedienteari dagokionez, trazadura aldaketa bat egin dela, desjabetze espedienteko 12. eta 13. finkei eragiten diena.

Aldaketa hori beharrezkoa izan da Altube ibaiaren azpiko bidegurutzearen kokapen aldaketaren ondorioz. Gainera, tinkatze baten bidez gauzatzea aurreikusita zegoen, baina, zona garbitu eta zulaketa enpresak lursailaren ezaugarriak xehetasun handiagoz aztertu ondoren, erabaki da bidegurutzearen bideragarritasuna ziurtatzeko, hura zulaketa gidatuaren bidez egin behar zela, eta igarobidea mugitu behar zela, egonkortasunari buruzko arrazoizko zalantzak dauden zona batera hurbiltzea saihestuz, inguruan lur lerradura bat gertatu baita berriki. Bidegurutzea lekuz aldatzeko beste arrazoi bat izan da inguruan hobi septiko bat egotea.

Trazadura aldaketa horren ondorioz, hoditeria luzeagoa izango da orain 12. finkaren azpitik, Altube ibaiaren bidegurutzeraino, eta, ondoren, 13. finkaren azpitik; izan ere, kasu horretan, bide mugakidetik igarotzeari utziko dio, hasieran aurreikusita zegoen bezala, baina kendu egingo zaio hustubide hoditeria egotearen ondoriozko lehengo eragina, zeina orain ez baita beharrezkoa, trazadura berriarekin kendu egingo baita proiektatutako hustubide kutxatila.

Trazadura aldatuta, 12 zenbakiko finkan dagoen kutxatila bentosa baterako aurreikusitako behin betiko okupazioa ere kendu egingo da, trazadura berriarekin lursail partikularretik kanpo mugitu ahal izango baita.

Kontuan hartuta 12 zenbakiko lurzatiak azaleraren ia erdia hartzen duela, eta berez aprobetxamendurik ez duten hiru zatitan banatuta dagoela, belardi osoa dagoela eraginpean jotzen da.

Hau da okupazioen azken emaitza:

	LEHEN			BERRIAK		
	ALDI BATERAKO OKUPAZIOA	ZORTASUNA	BEHIN BETIKO OKUPAZIOA	ALDI BATERAKO OKUPAZIOA	ZORTASUNA	BEHIN BETIKO OKUPAZIOA
12. FINKA	572 zelaia	79 zelaia	6 zelaia	3.039,06 zelaia	222 zelaia	0
13. FINKA	1.892 mendia 352 zelaia	147 mendia 185 zelaia	0	2.971 zelaia	521 zelaia	0

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren 2024ko irailaren 6ko txostenean adierazitakoaren arabera, azaldutako trazaduraren aldaketa dela eta, desjabetze espedienteko 12/000 eta 13/000 finketan gertatzen dira afekzioak, eta foru agindu honen eranskinean zehazten dira.

Aldaketa honen eraginpeko ondasun eta eskubideen desjabetzearen aurrekontua 1.253,27 euroan balioetsi du Desjabetze Atalak.

Aztertu dira Desjabetze Atalak eta Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Amurrioko hoditeria Gorbeiaiko harguneeen eta Askargango gaineko kutxatilararen artean berritzeko proiektu eguneratua" gauzatzeko eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda aldatzea. Desjabetze espedientearen 12/000 eta 13/000 zenbakiekin identifikatutako finkei dagokie-nez, honela geratuko da:

FINKA ZK.	JABEA	KATASTRO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA (M <sup>2</sup> )		
		POLIGONOA	LURZATIA			BEHIN BETIKO OKUPAZIOA	ALDI BATERAKO OKUPAZIOA	ZORTASUNA (UR HODITERIA 3M)
12/000	Larrinaga Mendieta, Laura	3	35	Amurrio	Zelaia	0	3.039,06	222
13/000	Resa Camino, Alicia	11	87	Amurrio	Zelaia	0	2.971	521

Bigarrena. Adieraztea aldaketaren eraginpeko ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, aldi baterako okupatzeko eta akueduktu zortasuna ezartzeko.

Hirugarrena. 1.253,27 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000506 "Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura, eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dago-kien balio justuaren kopurua ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Administrazio bideari amaiera ematen dion foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Amurrioko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 17a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*

**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**

Mugikortasun Jasangarriaren eta  
Bide Azpiegituren Saila  
Departamento de Movilidad Sostenible  
e Infraestructuras Viarias

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

PROIEKTUA / PROYECTO  
Gorbeia hartuneen eta Askargan gaineko kuxtaliaren artean Amurrioko hodiak berritzeko proiektu eguneratua /  
Proyecto actualizado de renovación de las conducciones de Amurrio entre las captaciones del Gorbea y la arqueta del Alto Askargán

Udal Mugartea / Término Municipal: Amurrio

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	Esp./Expte. 2021/2-MODIFICACION /ALDAKETA			ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	LURRAZPIKO AKUEDUKTU ZORTASUNA (3m)	
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²			
12/000	Larrinaga Mendieta, Laura	POLIGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE SUBTERRANEA DE ACUEDUCTO (3m)	DÍA
13/000	Resa Camino, Alicia	3	35	Zelata / Pradera	0	3.039,06	222	07/01/2025 12:00
		11	87	Zelata / Pradera	0	2.971,00	521	07/01/2025 12:45